

“Bertze prediku batzuk”

Adema-Zaldubiren eskuizkribuen seigarren liburukia dugu hau eta, oraingo ustez, eskuizkribuetan azkena. Horrek ez du erran nahi iturri hori agortu dugunik, ez nehola ere! Badira idazkiak doblezka direnak andana bat, beti aldaketa batzuekin haatik. Funtsean, liburuki huntan berean badituzue bi etsenplu horren adierazgarri: ‘Jaunaren egoitza sakratua’ eta ‘Jainkoaren etxea errespeta’ gai beraz ari baitira; halaber, Jesu-Kristoren pasioneaz’ eta ‘Ortzirale Sainduz’.

Baina bada ere “Mendiko artzain beltaren neurtitzak” hirurogeita lau orrialdetako eskuizkribu bilduma, ederki apaindua, jadanik agertua dugun “Zaldubi, artzain beltaren neurtitzak” delakoaren lehen bertsioa dena.

Argitaratuak ala argitaratu gabeak, ikerlarien eskuko dauzkagu aztertu nahi badituzte zer aldaketak egiten zituen Zaldubik lehenbiziko kopia batetik bigarren edo hirugarrenerat heltzean...

Erran dezagun oraino badela zazpigarren liburuki bat aurre ikusirik dagoena baina, gehienbat, aspaldi publikatuen bilduma egiteko, nahiz, hartan ere, eskuizkribu zenbaitño sartzea gerta lekigukeen.

‘Prediku zenbait’ liburukian jadanik hamahiru mintzaldi plazaratu genituen, ‘Hazparden eginak’ izan zirela erantsiz, ezen denek herri horren izena zeukaten barnean.

‘Bertze prediku batzuk’ deitu dugun huntako hamalau mintzaldietan ez da herririk izendatzen baina, gure ustez, hauek ere Hazparden bikario zenekoak dira (1854-1860), molde eta ortografia mota bertsuarekin baitatoz eta, jakina, apez gazteek zituztela hitzez hitz idazten beren lehen predikuak eta gogoz ikasten, adinean joanago eta leku gehiago ematen ziotelarik bat-bateko hitzaldiari.

Gainerat, ‘Ortzirale Sainduz’ deitu dugun predikuak data bat dakar, erdiz erdi, denboraldi hortan gaudela egiaztatzen duena. Eta are lehenago goaz ‘Igande egunaz’ deituarekin 1852an idatzi zuela berak salatzen baitigu.

Hemen errepikatzen dugu mintzaldi horietan Eliza katolikoaren erakaspenak, orduko ikuspegiz egia da, baina ederki euskaraturik aurkitzen ditugula. Eiki, gaurko begiz behatuz gero, bortitzak ere

kausi daitezke zenbait... Ordea, orhoitu behar da orduko gizartea zoin ‘gogorra’ zen, bakoitza bere buruarentzat, halaber zebilelarik ingurukoen alderat...

Nolanahi ere, idazki horiek denbora bateko gogo baten lekukotasun bikainak dira. Eskas geldituko zaiguna da beraren entzutea, predikari handi baten fama baitzuen. Grabaketak hasi zireneko, haatik, boza erkasten hasia zukeen. Gauden beraz idatziekin, hori baita naski beharrena.

Biziki interesgarria zaiguna da ikustea nola ari izan zen Adema-Zaldubi orduko jendearen giristino fedean argitzeko eta sustatzeko. Hortarako, euskararen ahal guziak baliatu nahi izan zituen, gaia bezainbat landuz mintzaira eta beraz euskarari emanaz gorputz sendoa eta distira handia. Euskarari eman zion leku garrantzitsu horren erakustea da, hain xuxen, argitalpen hauen helburu nagusia.

Huna “Bertze prediku batzuk” liburuko predikuen izendapenak:

Bataioa -- Haur ttipien irakaskuntza -- Haurren heziketa -- Abitua, girixtinoaren zaindari -- Jaunaren egoitza sakratua -- Jainkoaren etxea errespetatzen -- “Gure Aita zeruetan zarena...” -- Girixtinoaren duintasuna -- Igande egunaz -- Jesu-Kristoren Pasioniaz -- Ortzirale Sainduz -- Nola bizi, hala hil ! -- Jujamendu partikularraz -- Azken judizioaz.

Guziei, zerbaitetan, orrialde horien irakurketa probetxugarri izan dakizuela!

Paratzailea: Henri Duhau